




ILUSIOA ZABALTZEN
DUTEN IPUINAK

bibotecainfantil.fundaciononce.es



1

AITOR HEGAZKINLARIA



2



3

AGHARI BURUZ

(ARRETA GALERAGATIKO ETA HIPERAKTIBITATEAGATIKO ASALDURA)

Neuronek gure burmuinetik mezuak **ekarri eta eramaten dituzte** milaka postari bailitzan. Burmuinak informazio hori guztia ordenatu ahal izateko, badaude guztia koordinatzen duten organo **OSO SENTIKOR** batzuk.

Batzuetan, koordinazio-organo horiek ez dute erabat ondo funtzionatzen, eta, ondorioz, informazioa **geldoago doa**. Neska-mutil bati hori gertatzen zaionean, ezin da zu bezala kontzentratu. Erraz galtzen du arreta, oldarkorra da eta beharrezkoa dauka **asko mugitzea**. Aitorren istorioa irakurtzerakoan, ikasiko duzu AGHA duten **LAGUN** horiek gauza harrigarri piloak ezkututzen dituztela barnean.

4

Tik, tak, tik, tak...

Denbora aurrera doa eta ni ikasgaia ikasteko ezinean nabil.

Tik, tak, tik, tak... **PUXTARRIEKIN**

jolastera noa, kolore biziak izugarri gustatzen zaizkit, baina aitari agindu nion etxeko lanak garaiz bukatuko nituela... Ufa!

Erlojuua bueltaka etengabe...


Denbora izango al dut iluntasunean distira egiten duten errotulagailu guztiak ateratzeko?...

*Tik, tak,
tik, tak...*

Hara, hor zaudete. Barkatu, ez naiz zuekin ohartu...

GAUZA PILOA DAUKAT BURUAN...


5



Azkenean, aurkitu egin dut nire

borragomen bilduma! Begira, begira, mota guztietakoak ditut, txikiak eta handiak, usainarekin eta usainik gabe, animala itxurakoak, jostailu itxurakoak... Hau da nire gustukoena, borragoma honek **PATINETE** itxura dauka! Bide batez, non ote dago nire patinetea? Hemen egon beharko litzateke...

BAI, BAI, ZIUR NAGO HEMEN GORDE NUELA...



6



**TIK, TAK,
TIK, TAK....**


Hara! Matematika-azterketa zain daukat...

Eta oraintxe ohartu naiz ez dizuedala nire burua aurkeztu.

Aitor naiz, agian **DESPISTATUA** naizela irudituko zaizue, baina ez da hala... gauza da oso zaila dela niretzat arreta mantentzea eta asko mugitu behar dut...Azkenean!!!

Bai, hemen dago nire patinetea.

7



Beno, esaten nizuen bezala, *Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura* daukat, medikuek AGHA deitzen diote.

**TiK, taK,
tiK, taK...**

Ai ama! erlojua...



8

ESKOLAN, batzuetan ikaskideei
nirekin jolastea kostatzen
zaie, erraz haserretzen
naizelako...

Gainera, haiek baino denbora gehiago
behar dut ikasteko, eta horrek amorrutza
itzela ematen dit...


Baina ez naiz batera TRAKETSA.



9



Orain, Frantzisko nire medikuak botika bat
eman dit, ez dute ume guztiek behar
antza.



**Botika horrek nire
burmuinera**

bidaiatzen
du, **nire neuronek**
informazioa azkarrago
jaso dezaten,
eta, horrela,
ez ditut
lerroak ahazten

irakurtzerakoan, klaseko azalpenak hobeto
ulertzen ditut eta gutxiagotan altxatzen
naiz mahaitik. Gainera, Tere psikologoa
ere badaukat, nire gurasoei eta niri
laguntzen digu, eta aholkuak ematen
dizkigu **hobeto kontzentratu nadin.**

10

Aita sekulakoa da, eta edozere hitz egiten du nirekin. Harekin hitz egiteak izugarri laguntzen dit. Begietara begiratzen dit, eta gauzak geldo eta **BANAN BANAN** egin behar ditudala esaten dit...




"Botikak ez dira guztia, Aitor", esaten dit berotasunez, "zure ahaleginak eta gure maitasunak hazten lagunduko dizute".

Eta egia da.

11

Eskolan, maisu Rafak jada ez dizkit etxeko **lanak boligrafo** gorriz zuzentzen eta ez dit jendearen aurrean hitz **EGINARAZTEN**. Hurbil esertzen nau, eta lanak pixkana ematen dizkit, ez estutzeko. Gainera, ikaskideek nirekin jolas dezaten saiatzen da.



Erdi Aroa:

- Bisigodoek frankoak inbaditu zituztenean hasi zen.
- 1940-urak
- amartu enen

Horrela, pixkanaka, klaseko jendeak gero
eta hobeto ezagutzen nau:
haien **URTEBETETZEETARA**
gonbidatzen naute, **TELEFONOZ**
deitzen didate, geratzen
gara zinemara joateko...

TIK, TAK, TIK, TAK...

Beno, erlojuak
gogorarazi dit
matematikak
ikasten jarraitu behar dudala.

HEGAZKINLARI IZAN NAHI BADUT
aita bezala, aljebra piloa
ikasi behar dut...


11



Nire ametsa airetik hegan egitea da, eta
mundu osoari esatea

**NAHI DUZUNA IZAN
ZAITEZKEELA..**

Badakit bidea luzea dela,
baina esaerak dioen bezala,



"Amestearekin bakarrik
motz geratuko zara..."

Tik, tak, tik, tak...

amaiera